

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

EKONOMIAREN GARAPEN,
JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA
Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetza
Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia
Zirkularraren Zuzendaritza

DEPARTAMENTO DE DESARROLLO ECONÓMICO,
SOSTENIBILIDAD Y MEDIO AMBIENTE
Viceconsejería de Sostenibilidad Ambiental
Dirección de Calidad Ambiental y Economía Circular

OINARRIZKO GIDA DIRUZ LAGUNDUTAKO PROIEKTUAK GAUZATZEKO ETA JUSTIFIKATZEKO



Europar Batasuna
Unión Europea

Fondo Europeo de
Desarrollo Regional (FEDER)
"Una manera de hacer Europa"

Eskualde Garapenerako
Europar Funtza (EGEF)
"Europa egiteko modu bat"

*Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen
Sailburuaren 2021eko ekainaren 9ko AGINDUA,
ingurumena babesteko inbertsioak egiteko diru-laguntzak
enpresei emateko baldintzak arautzen dituen urriaren 27ko
202/2015 Dekretuan aurreikusitako diru-laguntzen deialdia
egiten duena 2020ko ekitaldirako*



Gida honek azaldu nahi ditu, modu laburrean, ingurumena babesteko inbertsioak egiteko xedez Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzak enpresei ematen dizkien diru-laguntzak jaso dituzten proiektuak gauzatzearekin eta justifikatzearekin zerikusia duten alderdi nagusiak. Helburua da legezko testuen interpretazioa erraztea eta informazioa zabaltzea, informazio hori gehiago zehaztuz beste lege-testu batzuk aipatzen direnean.

Betebehar konkretuak lege-testu hauetan daude jasota:

- Ingurumena babesteko inbertsioak egiteko diru-laguntzak enpresei emateko baldintzak arautzen dituen urriaren 27ko 2020/2015 Dekretuan, eta
- dagokion ekitaldiko deialdiaren alderdi espezifikoak arautzen dituen urteko Aginduan.

Berez, zalantzarik egonez gero, testu horiek kontsultatu beharko dira



EDUKIEN AURKIBIDEA

ERREFERENTZIAZKO ARAUDIA	4
pROIEKTUA GAUZATZEAN KONTUAN HARTU BEHARREKO ALDERDIAK	4
LEHENENGOA.- XEDEA.	4
BIGARRENA.- EMANDAKO ZENBATEKOA.	5
HIRUGARRENA.- EPEAK.	5
LAUGARRENA.-EGEF-EN KOFINANTZIAZOTIK ONDORIOZTATZEN DIREN BETEBEHARRAK	6
BOSGARRENA.- PUBLIZITATEA.	7
Kasu orokorra	7
Kasu espezifikoa: EGEF programaren bidez kofinantzatutako proiektuak (enpresa txiki eta ertainak)	8
SEIGARRENA.- IKUSKAPENA.	9
FINANTZA DAITEZKEEN GASTUAK, EZIN FINANTZA DAITEZKEEN GASTUAK ETA JUSTIFIKAZIO-AGIRIAK	10
FINANTZA DAITEZKEEN GASTUAK	10
EZIN FINANTZA DAITEZKEEN GASTUAK	11
NOLA JUSTIFIKATZEN DIRA ORDAINKETAK?	12
LAGUNTZA MINORATZEKO IRIZPIDE OROKORRAK	12
ZER AGIRI AURKEZTU BEHAR DIRA PROIEKTUA JUSTIFIKATZEKO?	13
JUSTIFIKAZIO TEKNIKOA	13
Prozedura Arrunta	13
Prozedura Erraztua	16
JUSTIFIKAZIO EKONOMIKOA	17
PROIEKTUAREN HEDAKUNTZAREN JUSTIFIKAZIOA	18
HAUTAGARRITASUN BALDINTZEN EGIAZTAPENAREN JUSTIFIKAZIOA	18
ERANSKINAK	20
I.ERANSKINA. . INGURUMEN-HOBEKUNTZA KUANTITATIBOAREN JUSTIFIKAZIO- TXOSTENA	22
II.ERANSKINA. PROIEKTUARI EGOTZITAKO FAKTUREN ZERRENDA	22
III.ERANSKINA. BESTE LAGUNTZA BATZUEN AITORPENA	23
IV.ERANSKINA. KARTEL EREDUA	24
V.ERANSKINA. BALDINTZA-AGIRIAREN EREDUA	25



ERREFERENTZIAZKO ARAUDIA

Ingurumena babestera zuzendutako inbertsioetarako enpresei ematen zaizkien diru-laguntzen pertsona onuradunen betebeharrak lege-testu hauetan jasotzen dira:

- ingurumena babesteko inbertsioak egiteko diru-laguntzak enpresei emateko baldintzak arautzen dituen urriaren 27ko 2020/2015 Dekretuan, eta
- dagokion ekitaldiko deialdiaren alderdi espezifikoak arautzen dituen urteko Aginduan. (AGINDUA, 2021eko ekainaren 9koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen sailburuarena).

Aldi berean, 202/2015 Dekretuak estatu-laguntzei buruzko europar araudiari egiten dio erreferentzia. Kasu horretan, Kategorien Araberako Salbuespenen Erregelamendua (RGEC) da aplikatzekoa. Zehazki, diru-laguntza hauek bat datoz Batzordearen 2014ko ekainaren 17ko 651/2014 (EB) Erregelamenduan ezarritako baldintza eta mugekin, alegia, Tratatuaren 107. eta 108. artikulua aplikatuz (187. EBAO, 2014ko ekainaren 26koa) laguntza kategoria jakin batzuk barne-merkatuarekin bateragarritzat jotzen dituen Erregelamendu horretan ezarritako baldintza eta mugekin.

Bukatzeko, baina ondorio praktikoei begira garrantzi berdinarekin, aipatu behar da ezen, laguntzen deialdi hau EGEFen Euskadiko 2014-2020ko Programa Operatiboaren konfinantziazioa duenez, 1303/2013 Erregelamendutik (EB) ondorioztatzen diren betebeharrak ere direla aplikatzekoak. 2013ko abenduaren 17ko 1303/2013 ERREGELAMENDUA (EB), Europako Parlamentuarena eta Kontseiluarena, xedapen erkideak ezartzen dituena Eskualde Garapenerako Europar Funtsari buruz, Europako Gizarte Funtsari buruz, Kohesio Funtsari buruz, Landa Garapenerako Europako Nekazaritza Funtsari buruz eta Europako Itsas eta Arrantza Funtsari buruz, eta, orobat, xedapen orokorrak ezartzen dituena Eskualde Garapenerako Europar Funtsari buruz, Europako Gizarte Funtsari buruz eta Europako Itsas eta Arrantza Funtsari buruz, bai eta indarrik gabe uzten ere Kontseiluaren (EE) 1083/2006 Erregelamendua.

Gida honek laburbildu nahi ditu, ondorio praktikoei begira, horien guztien alderdi eta gai nagusiak.

PROIEKTUA GAUZATZEAN KONTUAN HARTU BEHARREKO ALDERDIAK

LEHENENGOA.- XEDEA.

(2. artikulua.- 202/2015 Dekretuan diruz lagunduko diren lerroak)

- Dirulaguntzari buruzko deialdiaren ebazpenean aipatzen den izenburua duen proiektua gauzatzea/exekutatzea da emandako dirulaguntzaren xedea.
- **Proiektuan egiten den edozein aldaketa** (instalatu beharreko ekipo mota, jarduerak, eta abar) **aldez aurretik** jakinarazi beharko zaio Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzako Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritzari (egoitza elektronikoaren bitartez), aldaketa ebaluatu dadin eta, egokituz joz gero, onartu egin dadin. Onarpen hori idatziz jaso gabe, erakundeak ezin du aldaketa onartutzat jo.

GARRANTZITSUA!

Aldaketa guztiak alde aurretik eskatu behar dira, modu egokian justifikatuta, eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzako Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritzak onartu egin behar ditu, idatziz. Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritza

BIGARRENA.- EMANDAKO ZENBATEKOA.

(13. artikulua.- 2021eko ekainaren 9ko Aginduko diru-laguntzen zenbatekoa eta esleipen-irizpideak)

Emandako diru-laguntzaren zenbatekoa deialdiaren Ebazpenean adierazten dena da.

Baldintzen eta bermeen agiriaren bitartez jakinaraziko zaio dirulaguntzaren pertsona onuradunari diruz lagundu daitezkeen kostuetatik zer ehuneko den dirulaguntza, onartutako inbertsio garbiari¹ dagokionez.

Edonola ere, aplikatzekoak izango dira 202/2015 Dekretuan ezarritako gehieneko mugak, proiektua zer motatakoa den kontuan hartuta.

Inbertsioa egin ondoren diruz lagundu daitezkeen kostuak eskaeran kontsideratutakoak baino txikiagoak baldin badira, dirulaguntzaren behin betiko zenbatekoa murriztu egingo da proportzionalki, kostu horien arabera.

HIRUGARRENA.- EPEAK.

Inbertsioa exekutatzeko epea eskabidean definitutakoa izango da, urriaren 22ko 202/2015 Dekretuaren 5. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Inbertsioa justifikatzeko epea inbertsioaren exekuzioa amaitu eta 6 hilabetera bukatzen da, urriaren 22ko 202/2015 Dekretuaren 19. artikuluan ezarritakoaren arabera.

Proiektua gauzatzeko epea luzatu behar dela aurreikusten denean, diruz lagundutako proiektuaren baldintza espezifikoeekin lotutako eta ondo justifikatutako arrazoiengatik, hori **proiektua gauzatzeko epea amaitu aurretik jakinarazi behar zaio** Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzako Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritzari (egoitza elektronikoaren bidez), luzapenaren eskabidea ebaluatu dadin, eta, hala dagokionean, onartu egin dadin. **Horri dagokion ebazpena idatziz jaso ezean, diru-laguntzaren erakunde onuradunak ezin du luzapena onartutzat jo.**

¹ Ikusi hurrengo atala FINANTZA DAITEZKEEN GASTUAK, EZIN FINANTZA DAITEZKEEN GASTUAK ETA GASTUAK JUSTIFIKAZIO-AGIRIAK.



LAUGARRENA.- EGEF-EN KOFINANTZIAZOTIK ONDORIOZTATZEN DIREN BETEBEHARRAK ENPRESA TXIKI ETA ERTAINENTZAT

Dirulaguntzaren onuraduna enpresa txiki edo ertain bat bada, Eskualde Garapeneko Europako Funtsak (EGEF) ehuneko berrogeita hamar konfinantzatuko du. Enpresa txiki eta ertainei, horrenbestez, ondoko betebehar hauek ezarriko zaizkie:

EGEFen kofinantziazotik ondorioztatutako betebeharrak:

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 1303/2013 Erregelamenduan (EB), 2013ko abenduaren 17koan, xedatutakoaren mende daude laguntzak, eta gutxienez honako hauek dira EGEFen laguntzarekin egindako finantzaketatik eratorritako betebeharrak:

- *Kontrol, erantzukizun, zehapen-araubide eta ez-betetzei dagokienez, onuradunak legedi nazionala eta Europako Batasuneko bete beharko ditu.*
- *Euskadiko 2014-2020 aldirako EGEF programa operatiboaren esparruan kofinantzatuko da laguntza, eta alderdi horren berri eman beharko da. Alde horretatik, diruz lagundutako jarduketari buruz egiten diren informazio- eta komunikazio-ekintza guztietan, Batasunaren ikurra eta Europar Batasunaren erreferentzia txertatuta aipatu beharko da EGEFen bidezko Europako Batasunaren kofinantzaketa hedapenari lotutako material edo euskarrietan; eta eragiketa gauzatzean, hala dagokionean, labor deskribatuko da eragiketa bere webgunean, Batasunaren dirulaguntza nabarmenduta, eta gutxienez kartel bat jarriko da proiektuari buruzko informazioa emateko, gutxienez A3 tamainan, eta bertan Batasunaren dirulaguntza aipatuko da jendeak ikusteko lekuan.*
- *Proiektuak diruz laguntzeko arau nazional eta komunitarioak betetzea.*
- *Laguntzen araubidea Salbuespenen Erregelamenduaren arabera da (651/2014 Erregelamendua, kategorien arabera salbuespenekoa).*
- *Operazioaren kostuak eta ordaintzeko baldintzak zehazteko metodoa dirulaguntzen oinarri arautzailetan adierazitakoa da.*
- *Diruz lagundutako jarduketari buruz eskatzen zaion informazioa ematea, eskatzen zaion formatuan.*
- *Kontabilitate berezi bat izatea edo erraz identifika daitezkeen kodeak erabiltzea diruz lagundutako jarduketentzat.*
- *Aukeratutako operazioaren inguruko finantza- eta administrazio-informazioa nahiz haien garapenaren jarraipenari buruzko informazioa artxibatzea, eragiketaren gastuak jasota dauden kontuen aurkezpenaren ondoko abenduaren 31tik hiru urte igaro bitartean, eta agintari eskudunei ematea eskatzen dutenean.*
- *Operazioari lotutako adierazleak zenbateraino lortu diren jakinaraztea eta gastuak justifikatzea.*
- *EGEF laguntza onartuz gero, eragiketen zerrenda publikoan sartzea ere onartuko da.*
- *Iruzurraren kontrako proportziozko neurri eraginkorrak hartzea bere kudeaketa-eremuan, finantzaketa bikoitza saihestea, dokumenturik ez faltsutzea eta abar, bai eta arrisku posibleak hautemateko informazioa ematea ere. Neurri horien ondorioz, arriskuak saihesteko prozedura berrikusi ahal izango da eta, iruzurra egiteko arrisku handia dagoela ebazten bada, laguntza ukatzeko edo dagoeneko kobratutako laguntza erretiratzeke aukera ere aplikatu ahal izango da.*

Dirulaguntzak Euskadiko 2014-2020 EGEF Programa Operatiboaren barruan

- *Helburu Tematikoa: 6HT – Ingurumena kontserbatzea eta babestea eta baliabideen eraginkortasuna sustatzea*
- *Inbertsio lehentasuna: 6.g.II – Industriaren trantsizioari laguntzea baliabideak eraginkortasunez erabiltzen dituen*



ekonomiara iristeko, hazkunde ekologikoa sustatzea, berrikuntza ekologikoa bultzatzea, eta ingurumen-inpaktua sektore publiko eta pribatuan kudeatzea.

- *Helburu Espezifikoa: 6.g.1.HE. – Industriaren trantsizioari laguntzea baliabideen aldetik eraginkorra den ekonomiara iristeko, eta hazkunde ekologikoa sustatzea.*
- *Esku-hartzearen kategoria: 069 – ETEen ekoizpen-prozesu ekologikoei eta baliabideen erabilera eraginkorrari laguntzea.*
- *Finantza-ibilbidea duen erakundea: Eusko Jaurlaritz*

BOSGARRENA.- PUBLIZITATEA.

KASU OROKORRA

202/2015 Dekretuaren 20., g) artikuluan ezarritakoaren arabera, *“proiektua zabaltzeko egiten diren agirietan eta publizitatean, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren babesa dutela aipatu beharko dute. Aipamen hori Eusko Jaurlaritzaren Erakunde Nortasunaren Eskuliburuan jasotakoaren arabera txertatuko da. Dena dela, **Ekonomiaren garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailak txosten bat egiteko eskatu ahal izango du, lortutako ingurumen-hobekuntzaren ikuspuntutik garrantzitsutzat jotzen diren proiektuak jendaurrean jartzeko”***.

Zehazki:

- Diru-laguntza eman dela jakinarazten den unetik aurrera, **Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailburuordetzaren sostengua eta lankidetz**a aipatu behar dira jardueraren inguruko ahozko eta idatzizko informazio guztietan, jarduera gauzatu aurretik, gauzatzen den bitartean eta gauzatu eta gero.
- **Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren irudi korporatiboa sartu behar da**, modu egokian, besteak beste espazio hauetan:
 - Gutxienez kartel bat jarriko da proiektuari buruzko informazioarekin –gutxienez A3 tamainakoa–, publikoak ondo ikus dezakeen leku batean, Eusko Jaurlaritzako **Ekonomiaren garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren** finantza-laguntza aipatuz (ikus IV.eranskina. KARTEL eredu).
 - Jardueraren webgunean, webgunerik egonez gero.
 - Laguntzatik ondorioztatzen den prestakuntza-, informazio-, sustapen- eta publizitate-material orok, erabiltzen den euskarria zeinahi delarik ere, gutxienez Eusko Jaurlaritzako **Ekonomiaren garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren** logotipoa eraman beharko du.
 - Aurkezpen, ospakizun eta ekitaldietan, erakunde onuradunak Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren irudi korporatiboa sartu beharko du, modu egokian, bertaraten direnei banatutako dokumentazioan eta dokumentazio tekniko orokorrean ez ezik, jardueraren garapen eta publizitatean erabilitako edozein materialetan ere (gonbidapenak, txostengileei zuzendutako gutunak, gardenkiak, sustapen-materiala, eta abar).

GARRANTZITSUA!

Erakundeak Eusko Jaurlaritzako *Ekonomiaren garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren* logotipoa jarri beharko du proiektu onuradunetik ondorioztatzen diren material guztietan.

- Eusko Jaurlaritzako *Ekonomiaren garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saila*, EGEF eta erakunde onuradunarenak ez diren beste logotipo batzuk jartzen badira, hori behar den bezala justifikatu beharko da. Orokorrean, materialetan ezin izango da sartu proiektu onuraduna garatzen laguntzeko zerbitzuren bat bete duten erakundeen logotiporik.
- **Ekitaldi publikorik** egiten bada eta Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren parte hartzea espero bada (aurkezpenak, ikastaroak, jardunaldiak, eta abar), ondoren aipatzen den dokumentazioa bidali behar da aurretik, denbora nahikoz, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzako Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritzak ebaluatu ahal izan dezan bertara joateko aukera:
 1. Nork eskatzen duen Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saileko pertsona(k) ekitaldira bertaratzea.
 2. Ekitaldia non egingo den.
 3. Ekitaldia zer egunetan egingo den.
 4. Ekitaldiaren zer momentutan behar den Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Saileko pertson(ar)en presentzia (inaugurazioa, amaiera, txostena aurkeztea, eta abar).
 5. Ekitaldi mota (jardunaldia, mintegia, emaitzen aurkezpena, prentsaurrekoa, eta abar.).
 6. Zer pertsona gonbidatzen d(ir)en.
 7. Ekitaldira bertaratuko diren beste pertsona batzuk.
 8. Ekitaldiaren aurre-egitaraua (interbentzioak, atsedenaldiak, eta abar.).

KASU ESPEZIFIKOA: EGEF PROGRAMAK KOFINANTZIATUTAKO PROIEKTUAK (ENPRESA ERTAIN ETA TXIKIAK)

Aurrekoaz gain, kontuan hartu beharko da 202/2015 Dekretuaren 20.h) artikulua ezartzen duena, alegia: *“Diruz lagundutako jardueri buruzko informazio- eta komunikazio-jarduerak egiten badira, erkidegoak EGEFren bidez finantzaketan parte hartu duela aipatu beharko da hedapen horretarako sortutako material eta euskarrietan, Batasunaren ikurra eta Europar Batasunari buruzko aipamena ere jasoz. Era berean, proiektua gauzatu bitartean, haren deskripzio laburra egingo da Interneten dagokion gunean, Europar Batasunaren finantza-babesa nabarmenduz, eta proiektuari buruzko informazioa izango duen kartel bat jarriko da gutxienez –A3 gutxieneko neurrikoa– jendeak ongi ikusteko moduko leku batean, eta bertan Batasunaren finantza-laguntza aipatuko da”.* (ikus IV. eranskina. KARTEL eredu).

EGEFen publizaterako jarraibideak, informazio eta komunikazioaren alorreko laguntza-erregimenetan, 1303/2013 (EB) Erregelamenduaren 115. artikulua 3. atala eta XII. Eranskinaren 2.2. atala modu egokian betetzeko

1. Gauzatzen diren informazio- eta komunikazio-neurri guztietan, onuradunak aitortu beharko du Funtsek operazioari emandako laguntza, honako hau erakutsiz:

- a) Batasunaren ikurra, Batzordeak 115. artikulua 4. atalaren arabera onartutako exekuzio-egintzan ezarritako ezaugarri teknikoaren arabera, eta Europar Batasunari buruzko aipamen bat.
- b) Eskualde Garapenerako Europako Funtzari –EGEF- buruzko aipamen bat.

Horri begira, jarraian eranstean da Eusko Jaurlaritzaren Ekonomiaren garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren logoarekin batera sartu behar den logoa, bai gauzatzen diren informazio- eta komunikazio-neurri guztietan eta bai proiektuak/jarduerak sortzen duen dokumentazioan.



Europar Batasuna
Unión Europea

Fondo Europeo de
Desarrollo Regional (FEDER)
"Una manera de hacer Europa"

Eskualde Garapenerako
Europar Funtza (EGEF)
"Europa egiteko modu bat"



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

INGURUMEN, LURRALDE PLANGINTZA
ETA ETXEBIZITZA SAILA
DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE,
PLANIFICACIÓN TERRITORIAL Y VIVIENDA

2. Operazioa gauzatzen den bitartean, onuradunak Funtsetatik jasotako laguntzaren berri emango dio publikoari:

- a) Operazioari buruzko deskribapen labur bat eginez bere webgunean, webgunerik izanez gero, jasotako laguntza mailaren proportzioan, bere helburuak eta emaitzak azalduz, eta Batasunaren finantza-sostengua azpimarratuz (lehen aipatutako logoa ere jarrita);
- b) 4. eta 5. puntuetan kontsideratzen ez diren operazioen kasuan, gutxienez proiektuari buruzko informazioa duen kartel bat jarriko da (gutxienez A3 tamainakoa); bertan, Batasunaren finantza-laguntza aipatuko da, publikoak ondo ikus dezakeen leku batean –adibidez: eraikin baten sarreran-.

SEIGARRENA.- IKUSKAPENA.

202/2015 Dekretuaren 19.2. artikuluan ezarritakoaren arabera, Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritzak egokitzen dituen ikuskapenak egin ahal izango ditu pertsona onuradunaren instalazioetan, diru-laguntzaren xede den inbertsioaren gauzapena egiaztatzeko.

FINANTZA DAITEZKEEN GASTUAK, EZIN FINANTZA DAITEZKEEN GASTUAK ETA GASTUAK JUSTIFIKAZIO-AGIRIAK

FINANTZA DAITEZKEEN GASTUAK

- Inbertsio garbia (kontzeptua) – 202/2015 Dekretuaren 6. artikuluko 3. puntuan adierazten den bezala, 5 urtetik gorako epeetan amortizatuko diren inbertsioak soilik lagun daitezke diruz.
- Diruz lagun daitezkeen kostuen zenbateko garbia kalkulatzeko aintzat hartuko dira produzitzeko gaitasunaren balizko hazkundeak eragindako abantailak, inbertsioaren lehenengo bost urteetan sortuko diren kostuen aurrezkiak eta epe horretan izandako produkzio gehigarriak.
- Dirulaguntzaren zenbatekoa inbertsio garbiaren gaineko ehuneko gisa ezartzen da.

Inbertsio garbia kalkulatzeko, eskatutako zenbatekoari diruz ezin lagundu daitezkeen kostuak eta inbertsioak 5 urtean sortutako aurrezkiak kenduz.

Epaimahaiaren kalkuluak jasotzen dira erakunde onuradun bakoitzari jakinarazten zaion baldintzen eta bermeen agirian.

(Detalle de la inversión a considerar)

(Balioetsi beharreko inbertsioaren xehetasunak)

Importe solicitado: Eskatutako zenbatekoa:	«Importe_Bruto_Solicitud»	
Ahorros Inducidos (solicitud): Aurrezki induzituak (eskaera):	«Ahorros solicitud»	
Ahorros Inducidos (considerados): Aurrezki induzituak (balioetsiak):	«Ahorros inducidos considerados»	Comentarios/ Oharrak:
Otros conceptos no admisibles (especificar): Onargarriak ez diren beste kontzeptu batzuk (zehaztu):	Importe / Zenbatekoa	Comentarios / Oharrak::
Total a descontar: Deskontatu beharrekoa, guztira:	«Diferencia»	

Importe de la Inversión Neta (=Importe solicitado - Σ (Ahorros inducidos considerados + Otros conceptos no admisibles): Inbertsio garbiaren zenbatekoa (=Eskatutako zenbatekoa - Σ (Balioetsitako aurrezki induzituak + Onargarriak ez diren beste kontzeptu batzuk):	«Inversión_Neta»
--	-------------------------

- Finantzatzeko modukoak izango dira diru-laguntzaz garatuko den jarduerarekin zuzeneko lotura duten gastuak, proiektua edo jarduera gauzatzeko epean sortzen badira, aurrekontuan sartuta badaude, identifikagarriak eta kontrolagarriak badira, eta merkatuko prezioekin bat badatoz.
- Erakunde onuradunak luzapenik eskatuko balu diruz lagundutako jarduera gauzatzeko aurreikusitako epean, eta hura onartu egingo balitz, 202/2015 Dekretuaren 5. artikuluko 2. puntuan

xedatutako baldintzei jarraikiz, diruz lagundu ahal izango dira proiektua amaitzeko onartzen den data berriraino izandako gastuak.

- Lege-aholkularitza, notariotza, aholkularitza tekniko, kontabilitate edo auditoriaren alorreko gastuak finantzateko modukoak izango dira proiektuarekin lotuta badaude zuzenean eta beharrezkoak badira proiektua prestatzeko edo garatzeko, betiere aurrekontuan kontuan hartu badira.

EZIN FINANTZA DAITEZKEEN GASTUAK

Gastu bat ezin izango da finantzatu proiektua gauzatzeko epearen aurretik edo horren ostean sortu bada.

Ezin finantza daitezkeen beste gastu batzuk honako hauek dira:

- Pertsonal propioaren kostuak.
- Diruz lagundutako proiektuaren garapenarekin zuzenean lotuta ez daudenak.
- Lege-betebeharretatik (adibidez: arazko neurketak, eta abar.) ondorioztatzen direnak eta gai hauekin zerikusia dutenak: isunak, finantza-zehapenak, tasak eta zergak, eta zigor-prozeduren gastuak.
- Edozein bitartekotatik berreskura daitezkeen BEZa ezin izango da finantzatu, ezta azkeneko onuradunak ezin berreskuratu badezake ere.
- Laguntzaren erakunde onuradunaren webgunean bertan proiektuaz egiten den publizitatea.
- Erakunde onuradun bakoitzari bere Baldintza Tekniko eta Ekonomikoen Agirian espezifikoki jakinarazten zaizkionak. Agiri horretan, jarraian erakusten denaren moduko taula bat erantsiko da, eta hor zehaztuko da zer datu hartzen diren kontuan inbertsio garbia kalkulatzeko. Onargarriak ez diren gastuak atal honetan jasoko dira: “onargarriak ez diren beste kontzeptu batzuk”.

(Detalle de la inversión a considerar)

(Baliotsi beharreko inbertsioaren xehetasunak)

Importe solicitado: Eskatutako zenbatekoa:	«Importe_Bruto_Solicitud»	
Ahorros Inducidos (solicitud): Aurrezki induzituak (eskaera):	«Ahorros solicitud»	
Ahorros Inducidos (considerados): Aurrezki induzituak (baliotsiak):	«Ahorros inducidos considerados»	Comentarios/ Oharrak:
Otros conceptos no admisibles (especificar): Onargarriak ez diren beste kontzeptu batzuk (zehaztu):	Importe / Zenbatekoa	Comentarios / Oharrak::
Total a descontar:		
Deskontatu beharrekoa, guztira:	«Diferencia»	

Importe de la Inversión Neta (=Importe solicitado - Σ (Ahorros inducidos considerados + Otros conceptos no admisibles): Inbertsio garbiaren zenbatekoa (=Eskatutako zenbatekoa - Σ (Baliotsitako aurrezki induzituak + Onargarriak ez diren beste kontzeptu batzuk):	«Inversión_Neta»
---	-------------------------

NOLA JUSTIFIKATZEN DIRA ORDAINKETAK?

- **Finantza-erakundeen bidezko ordainketak:** hauxe aurkeztuko da: jatorrizko faktura eta banku-transferentziaren frogagiria edo fakturaren kobrantza egiaztatzen duen kontu-laburpena, bankuak emanda.
- **Taloi edo txekearen bidezko ordainketak:** hauxe aurkeztuko da: jatorrizko faktura, txekearen kopia eta kontuko zordunketa bat, hornitzaileak txekea behar den bezala kobratu duela egiaztatzen duena.

LAGUNTZA MINORATZEKO IRIZPIDE OROKORRAK

Azkeneko diru-laguntzaren zenbatekoa minoratu egin daiteke emandako diru-laguntzaren aldean, zenbait arrazoiengatik.

Arrazoi ekonomikoengatik, honelako gastuak sartzeagatik:

- Diruz lagundutako jarduerarekin zerikusirik ez duten gastuak (beste proiektu batzuk, epez kanpoko fakturak, eta abar).
- Diruz ezin lagundu daitezkeen gastuak (fakturaren datagatik edo kontzeptuagatik -isunak, komisioak, eta abar-).
- Beste laguntza batzuetan jadanik finantzatu diren gastuak.

- Modu desegokian justifikatu diren gastuak.
- Merkataritzako trafiko juridikoan baliozkoak ez diren kontabilitate-agirien gastuak (fakturen datuak).

Arrazoi teknikoengatik:

- Proiektuaren aukeraketa oinarritu zuten jardueretako bat ez betetzea.
- Proiektuaren jarraipen eta kontrola egiteko eginkizunak ez erraztea.
- Justifikazio-dokumentazioa ez aurkeztea edo epetik kanpo eta forma desegokian aurkeztea.
- Jardueraren bat ez gauzatzea edo aldatzea aurretiko baimenik gabe.
- Logotipoa ez jartzea edo lehentasunezko tokian ez jartzea, proiektuaren publizitatean.

Onuradunak justifikazio ekonomikoan kalkulatu duena minoratzen bada, horren berri emango da.

ZER AGIRI AURKEZTU BEHAR DIRA PROIEKTUA JUSTIFIKATZEKO ?

(19. artikulua.- 202/2015 Dekretuko diru-laguntzaren justifikazioa eta likidazioa)

Proiektua gauzatzeko ezarritako aldia igaro ondoren (kronograma), erakundeak gehienez sei hil ditu amaiera datatik, proiektua justifikatzeko agiri guztiak aurkezteko.

Aurkeztu beharreko justifikazio-dokumentazioak jarraian deskribatzen diren edukiak izan behar ditu:

- Justifikazio teknikoa
- Justifikazio ekonomikoa
- Proiektuaz egindako hedakuntzari dagokion justifikazioa
- Hautagarritasun-baldintzak egiaztatzeari dagokion justifikazioa.

JUSTIFIKAZIO TEKNIKOA

Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzako Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularren Zuzendaritzak, diru-laguntzen deialdia kudeatzeaz arduratzen den organoa den aldetik, dagokion dokumentazio teknikoa aurkezteko eskatuko die erakunde onuradunei, diru-laguntza esleitzeko erabili den prozeduraren arabera.

PROZEDURA ARRUNTA

Prozedura arruntaren bidez diruz lagundutako proiektuen kasuan (XXX-PROT-2021 kodedunak), justifikazio teknikoa ondoko agirien bidez egin beharko da –nahitaez banaka bidali behar dira–. Fitxategiei ondoren aipatzen diren zenbakiak eta izenburuak ipini beharko zaizkie:

- A. Gauzatutako proiektuaren **amaierako txosten teknikoa**, gutxienez alderdi hauek azalduz:
- Enpresaren aurkezpen laburra eta jardueraren deskribapena.



- Aurreikusitako jardueren deskribapena, eta gauzatutako jardueren garapena (honako hau zehaztuz: lanaren metodologia, jarraitutako lan-plana – datak, eta abar -).
- Diruz lagundutako instalazioaren deskribapen teknikoa eta espezifikazio funtzionalak: ezaugarriak, markak eta modeloak, kapazitateak, faseak, aditibo edo errektiboak eta kontsumoak, instalatutako potentziak, fluxu edo emariak... Kontua da deskribatzea zer instalatu den, non eta zertarako.
- Instalatutako ekipoen katalogoak, eskura edukiz gero
- Konklusio orokorra eta proiektuaren balorazioa.
- Enpresako oinplanoaren plana, diruz lagundutako instalazioa erakusten duena.
- Diruz lagundutako instalazioaren argazkiak (lehen eta gero).

B. **Ingurumen-hobekuntza kuantitatiboaren justifikazio-txostena (I. eranskineko ereduaren arabera).** Lortutako ingurumen-hobekuntzaren deskribapen kuantitatiboa, dirulaguntzaren eskabidean proposatutako ingurumen-helburuetan oinarrituta, diruz lagundutako aurreko eta ondorengo egoerak alderatuz. Hobekuntzaren xede izan den ingurumen-alderdiak eskabidearen datatik justifikazioa aurkezteko egunera arte izandako bilakaera islatzen duten datu kuantitatiboak aurkeztu beharko dira. Aurreikusitako ingurumen-helburuak eta benetan lortutakoak bat ez badatoz, behar bezala justifikatu beharko da egoera hori.

C. **Dokumentu espezifikoa, proiektuaren tipologiaren arabera.** Ikus hurrengo taula.

Tipologia	Proiektuaren tipologiaren arabera aurkeztu beharreko agiriak
Ura	<p>Inbertsioa gauzatzearen osteko isurketaren analitikaren kopia eskaneatua edo PDF originala, dirulaguntzaren eskabidean zehaztutako parametroak azalduz.</p> <p>Ur-kontsumoaren murrizketaren justifikazioa ere sartuko da.</p> <p>Organo eskudunak isurketarako emandako baimenaren kopia eskaneatua bidaliko da, edo, hala dagokionean, hori eskatu izana egiaztatzen duen dokumentazioa.</p> <p>Mantenu prebentiboko plana, diruz lagundutako instalazioak ondo funtzionatu dezan.</p>



Tipologia	Proiektuaren tipologiaren arabera aurkeztu beharreko agiriak
Airea	<p>Emisio-fokuen neurketaren txostenaren kopia eskaneatua edo PDF originala, eskabidean aurreikusitako hobekuntza lortu egin dela justifikatzeko. Txostena kontrolerako baimendutako erakunde batek egin behar du.</p> <p>Emisio lausoen kasuan, hasierako eta amaierako emisio lausoen kuantifikazioaren justifikazioa, diru-laguntzan zehaztutako parametroak betetzen direla egiaztatzen duena.</p> <p>Mantenu prebentiboko plana, diruz lagundutako instalazioak ondo funtzionatu dezan.</p>
Hondakinak	<p>Sortutako hondakin berriari dagozkion onarpen-agirien kopia eskaneatua edo PDF originala. Agiri horiek onartutako kudeatzaile batek eman behar ditu, eta bai horiek eta bai entreegi buruzko informazioa IKS-eem sistemaren bidez egin behar dira.</p> <p>Ekipoen kasuan, Mantenu prebentiboko plana, diruz lagundutako instalazioak ondo funtzionatu dezan.</p>
Lurzoruak	<p>Diru-laguntza honen esparruan egindako azterlanaren/txostenaren PDF originala.</p> <p>Dokumentazioa lurzoruaren kutsadura prebenitzeko eta zuzentzeko ekainaren 25eko 4/2015 Legeari lotutako prozeduren tramitaziorako aurkeztu dela erakusten duen justifikazioa.</p> <p>Diru-laguntza ordainduko da ingurumen-organoak hasitako prozeduren behin betiko onarpena egiten duenean (Lurzoruaren Kalitatearen Adierazpena, Lurzoruaren Egokitasunaren Adierazpena, Prozedura Hasteko Salbuespena, Aurri Industrialaren Kudeaketa, adierazpenaren osteko Kontrola eta Jarraipena, eta abar).</p>
Zarata	<p>Maila akustikoen neurketaren txostenaren kopia eskaneatua edo PDF originala. Txostena Administrazioak akreditatutako erakundeak egin behar du, eta bertan agertu behar da zer moteltze maila lortu den diruz lagundutako instalazioarekin.</p>

Tipologia	Proiektuaren tipologiaren arabera aurkeztu beharreko agiriak
Usainak	<p>Maila olfatometrikoen neurketaren eta/edo usainen moteltzearen efizientziaren txostenaren kopia eskaneatua edo PDF originala, UNE-EN <<Airearen kalitatea. Usain-kontzentrazioaren determinazioa olfatometria dinamikoaren bidez>> arauaren arabera. Txostena Administrazioak akreditatutako erakundeak egin behar du, eta bertan agertu behar da zer moteltze maila lortu den diruz lagundutako instalazioarekin.</p> <p>Azterlan/txosten olfatometrikoaren kopia eskaneatua edo PDF originala, honako alderdi hauek barne sartuta: usainaren iturri konfinatu eta lausoan identifikazioa; haien usain-emisioen karakterizazioa, UNE-EN <<Airearen kalitatea. Usain-kontzentrazioaren determinazioa olfatometria dinamikoaren bidez>> arauaren arabera; eta usainen sakabanaketaren modelizazioa.</p> <p>Instalazioaren usain-emisioak UNE-EN 13725:2004 arauaren arabera determinatzeaz arduratu den erakundearen akreditazioaren kopia eskaneatua bidaliko da.</p>
Azterlanak	Diru-laguntzaren esparruan landutako azterlanaren/txostenaren PDF originala.

- D. **Proiektuaren baldintza-agiri espezifikoan adierazitako dokumentu erantsiak.** Diruz lagundutako jardueraren izaeragatik egokitzat jotzen bada, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzako Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritzak, diru-laguntzen deialdia kudeatzeaz arduratzen den organoa den aldetik, beste agiriren bat eskatu ahal izango du Baldintza Teknikoen Agiriaren bitartez, aurreko paragrafoetan aipatutako agiriez gain, ezarritako baldintza partikularrak justifikatzeari begira.

PROZEDURA ERRAZTUA

Prozedura erraztuaren bidez diruz lagundutako proiektuen kasuan (haien kodifikazioa XXX-PROTS-2020 da), justifikazio teknikoak agiri hauek izango ditu:

Diruz lagundutako lerroa	Aurkeztu beharreko agiriak
a-b-c-d-e lerroak	Inbertsioen (a, b, d eta e lerroak) eta azterketen (c lerroa) kasuan, aurkeztu beharreko justifikazio-agiriak izango dira prozedura arruntean deskribatutako proiektu motei buruzko taulan ageri direnak (ikusi C atala), baldintzen agirian besterik aipatzen ez bada behintzat.
f1 lerroa - EMAS erregistroa	EMAS emateari buruzko ebazpena edo EMAS ziurtagiria
f2 lerroa - EMAS berritzea	EMASeko erregistroa berritzeko ebazpena.
f3 lerroa - Ekodiseinua, ekoetiketa	Ekodiseinuari edo ekoetiketari buruzko arauaren ziurtagiria edo ingurumen-aztarnaren kalkuluari buruzko txostenaren kopia.



Diruz lagundutako lerroa	Aurkeztu beharreko agiriak
edo ingurumen-aztarna	
f4 lerroa – Lurzoruaren kalitate-adierazpena	Adierazpenaren agiriaren kopia.
f5 lerroa - Plastikoak sartzearen saiakuntzak eta homologazioak	Egindako saiakuntzen eta eskuratutako homologazioen txostenak

Gainera, **proiektuaren baldintzen agiri espezifikoaren baldintza partikularren** atalean hala ezarri bada, ezarritako baldintza partikularrak justifikatzeko beharrezkoak diren agiriak ere aurkeztu beharko dira.

JUSTIFIKAZIO EKONOMIKOA

Kasu guztietan, ondoren adierazitako agiriak bidali behar dira egoitza elektronikoaren bitartez:

- **Fakturen zerrenda - Autolikidazioa** (ikus II. eranskina). Aurkezten diren fakturen zerrenda, kalkulu-orrian laburbilduta (Excel...), egoitza elektronikoan eskura dagoen formatuaren arabera.

Proiektuaren gastu eta inbertsioen zerrenda jasoko du, hartzekodunaren eta dokumentuaren identifikazioarekin, beraren zenbatekoarekin eta beraren jaulkipen-datarekin. Horri dagokionez, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Jasangarritasuneko Sailburuordetzako Ingurumen Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren Zuzendaritzak formulario elektronikoa bat presatu du, Excel formatuan. Formulario hori eskuragarri egongo da egoitza elektronikoan.

GARRANTZITSUA!

Egiaztatutako gastuak laguntza ematerakoan oinarritzat hartu zen inbertsio garbiaren gastuak baino txikiagoak izanez gero, **ordaindu beharreko laguntza gutxitu egingo da neurri proportzionalen.**

- **Faktura elektronikoak**, edo paperezko faktura originalen kopia eskaneatuak.
- **Ordainketen frogagiriak** edo fakturak ordaindu direla frogatzen duten beste agiri batzuk.
- Diru-laguntza gehiagorik jaso bada helburu berberarekin, **diru-laguntza horiek jaso izanari eta haien zenbatekoari buruzko zinpeko aitortpena** (ikus III. eranskina). Helburu berberera zuzendutako diru-laguntza gehiago jaso den edo ez adierazten duen idazkia, jasotako zenbatekoa adieraziz.

GARRANTZITSUA!



Erakundeak jaso dituen sarreren eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailburuordetzak emandako laguntzaren batuketa proiektuaren osoko kostua baino handiagoa bada, Eusko Jaurlaritzako Ingurumen Sailburuordetzak bere ekarpena gutxituko du neurri proportzionalan, 202/2015 Dekretuak proiektuaren tipologiarako aurreikusten duen gehieneko ehunekora iritsi arte.

- **Inbertsio Garbiaren Birkalkulua.** **Inbertsio garbia kalkulatzekoan aurrezki induzituak kontuan hartu dituzten proiektuetarako, espezifikoki** (ikus FINANTZA DAITEZKEEN GASTUEN, EZIN FINANTZA DAITEZKEEN GASTUEN ETA JUSTIFIKAZIO-AGIRIEN atala). Inbertsiotik ondorioztatutako aurrezki eta sarrerak birkalkulatu behar dira berriro, diru-laguntzaren eskabidean aurreikusitakoekin alderatuz. Adieraziko da ea instalazioak benetan sortutako sarrerak eta/edo aurrezkiak eskabidean aipatutakoak baino handiagoak edo txikiagoan izaten ari diren (edo horrela izatea aurreikusten den):

Aurrezkiak eta gastuak (5 urte)		1	2	3	4	5	Guztira (euroak)
1.- Ekoizpen-ahalmena handitzeagatik sortutako aurrezkiak	Eskabidea						
	Birkalkulua						
2.- Inbertsioari esker aurreztutako kostuak	Eskabidea						
	Birkalkulua						
3.- Beste aurrezki batzuk	Eskabidea						
	Birkalkulua						
4.- Ustiapen-gastuak	Eskabidea						
	Birkalkulua						
Aurrezpen garbia: (1+2+3- 4)	Eskabidea						
	Birkalkulua						

Hala dagokionean, egindako kalkuluak kontrastatzea ahalbidetzen duten datuak erantsi behar dira, hala nola isurketa-kanonaren formula, isurtzeko baimenaren fotokopia, fakturak, eta abar.

PROIEKTUAREN HEDAKUNTZAREN JUSTIFIKAZIOA

Proiektuaren Hedakuntzari buruzko Txosten bat aurkeztu beharko da.

Proiektua hedatzeko agiri eta publizitaterik eginez gero, justifikazio-fasean horien guztien kopia bidali beharko da. Horri begira, 202/2015 Dekretuaren 20.g) artikuluan adierazitakoarekin bat etorriz, Eusko Jaurlaritzako Ekonomiaren garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailaren babes aipatu behar da.

PROIEKTUA GAUZATZEAN KONTUAN HARTU BEHARREKO ALDERDIK deritzan atalean aipatu den bezala, EGEFen logoa ere jarri behar da, hala dagokionean.

HAUTAGARRITASUN BALDINTZEN EGIAZTAPENAREN JUSTIFIKAZIOA

1. **Zerga-betebeharrak (Foru Ogasuna) eta Gizarte Segurantzaren betebeharrak betetzeari buruzko ziurtagiriei** dagokienez, erakunde kudeatzaileak ofizioz egiaztatuko du ea pertsona



onuradunek garaiz eta modu egokian ordainduta ote dituzten euren zerga-betebeharrak eta gizarte segurantzaren kuotak.

2. Baldin eta **sozietatearen izena aldatu egin bada** diru-laguntza eman ostean, hauxe ere aurkeztu beharko da:
 - a. Azken eskrituren kopia (notarioaren fede publikoarekin, eta ez eskritura soila).
 - b. IFKren kopia .
 - c. Merkataritza-erregistroko inskripzioaren kopia.

3. Eskabidea aurkeztearen ostean eraturako ABEE bat izanez gero, honako hau aurkeztu beharko dute:
 - a. Eraketaren eskriturak.
 - b. IFKaren kopia.
 - c. Merkataritza-erregistroko inskripzioaren kopia.

ERANSKINAK

**I. ERANSKINA. INGURUMEN-HOBEKUNTZA KUANTITATIBOAREN JUSTIFIKAZIO-
TXOSTENA****Espediente zk.:** XXX-PROT(S)-2021**Enpresa eskatzailea:** (Sozietatearen izena)

Proiektuaren izena	(Proiektuaren izena, eskabidean adierazi zen bezala)
---------------------------	--

Enpresak bete behar du kutsaduraren prebentzio eta kontrol integratuari buruzko araudia (IPPC), 1/2016 Legegintzako Errege Dekretua eta 815/2013 Errege Dekretua:

(markatu X batekin baliozko aukera) BAI EZ

Proiektuaren eskabidean proposatutako ingurumen-helburuak:

(Proiektuaren eskabidean proposatutako zenbakizko ingurumen-helburuen laburpena)
--

Proiektuarekin lortutako ingurumen-hobekuntza:

(Helburu-adierazleetan lortutako emaitza kuantitatiboen laburpena)
--

Lortutako helburuek izandako desbideratzearen justifikazioa (izanez gero):

(Proposatutako helburuak ez badatoz bat benetan lortutako emaitzekin, desbideratzearen laburpen txiki bat)
--

II.ERANSKINA. PROIEKTUARI EGOTZITAKO FAKTUREN ZERRENDA



Empresa:

Proveedor	CAPV (Si/No)	Nº Factura	Fecha factura	Concepto	Importe TOTAL de la factura (sin IVA) (€)	Importe correspondiente a la inversión subvencionada (sin IVA) (€)
TOTAL Gastos Justificados					0,00	0,00
Ahorros a descontar (5 años)						0,00

Kontzeptua: faktura hori inbertsioaren zein zatitara bideratzen den azaltzen duen deskribapen laburra, gastuaren xedea argi adierazita.

Diru-laguntzari dagokion zenbatekoa: fakturaren zenbateko osoa ez badagokio diruz lagundutako inbertsioari, hori zutabe honetan adieraziko da.

III.ERANSKINA. BESTE LAGUNTZA BATZUEN AITORPENA

_____ jaunak, N.A.N.

zenbakia: _____, erakundea: _____

Kargu edo ardura: _____

Erakundearen IFK: _____

ZIURTATZEN DU:

_____ garaian garatu den eta ingurumena babestera zuzendutako inbertsioak enpresei emateko 2019ko deialdiaren (Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailburuaren 2021eko ekainaren 9ko AGINDUA) kontura _____ euroko diru-laguntza jaso duen _____ proiektua gauzatzeko jaso dituen laguntzak honako hauek direla, (aukera balioduna adierazi X batez):

Laguntza ekonomikoak:

Erakundea	Zenbatekoa	Ordaindutako partidak	Kofinantziazioaren %
GUZTIRA			

Ez da inolako kanpo-laguntzarik jaso proiektua gauzatzeko.

Eta egiaztatuta gera dadin, Laguntza Emateari buruzko Oinarri Arautzaileetatan ezarritakoa betetzeari begira, hauxe sinatzen dut _____ (e)n, _____(e)ko _____aren _____(e)(a)n

Sin. _____

*Sortutako orrialde guztiak sinatu, banan-banan

KASU ESPEZIFIKOA: EGEF PROGRAMAK KOFINANTZATUTAKO PROIEKTUAK (ENPRESA ERTAIN ETA TXIKIAK)

**INGURUMENA BABESTEKO INBERTSIOAK EGITEKO ENPRESEI DIRU-LAGUNTZEN PROGRAMA
PROGRAMA DE SUBVENCIONES A EMPRESAS PARA LA REALIZACIÓN DE INVERSIONES DESTINADAS A LA
PROTECCIÓN DEL MEDIO AMBIENTE**

KOFINANTZATUTAKO ERAGIKETA / ACTUACIÓN COFINANCIADA:

XXXXXXXXXX xxx xxxxx

XXXX XXXX

**EUSKO JAURLARITZAK ETA EUROPAR BATA SUNAK
2014-2020 ESKUALDE GARAPENERAKO EUROPAR FUNTSAREN (EGEF) BITARTEZ KOFINANTZATUTAKO ERAGIKETA**


**ACTUACIÓN COFINANCIADA POR EL GOBIERNO VASCO Y LA UNIÓN EUROPEA A TRAVÉS DEL
FONDO EUROPEO DE DESARROLLO REGIONAL 2014-2020 (FEDER)**



**Europar Batasuna
Unión Europea**

**Fondo Europeo de
Desarrollo Regional (FEDER)**
"Una manera de hacer Europa"

**Eskualde Garapenerako
Europar Funtsa (EGEF)**
"Europa egiteko modu bat"



**EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO**


**EKONOMIAREN GARAPEN,
JASANGARRITASUN
ETA INGURUMEN SAILA**

**DEPARTAMENTO DE DESARROLLO
ECONÓMICO, SOSTENIBILIDAD
Y MEDIO AMBIENTE**

INGURUMENA BABESTEKO INBERTSIOAK EGITEKO ENPRESEI DIRU-LAGUNTZEN PROGRAMA
PROGRAMA DE SUBVENCIONES A EMPRESAS PARA LA REALIZACIÓN DE INVERSIONES DESTINADAS A LA PROTECCIÓN
DEL MEDIO AMBIENTE

KOFINANTZATUTAKO ERAGIKETA / ACTUACIÓN COFINANCIADA:

~~XXXXXXXX xxx xxxxx~~ en la empresa ~~xxxxxxxxxx~~



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

EKONOMIAREN GARAPEN,
JASANGARRITASUN
ETA INGURUMEN SAILA

DEPARTAMENTO DE DESARROLLO
ECONÓMICO, SOSTENIBILIDAD
Y MEDIO AMBIENTE



- EKONOMIAREN GARAPEN, ¶
- JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA ¶
- Ingurumen, Jasangarritasuneko Sailburuordekoa ¶
- Ingurumen, Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularren Zuzendaritza ¶
- DEPARTAMENTO DE DESARROLLO ECONÓMICO, SOSTENIBILIDAD Y MEDIO AMBIENTE ¶
- Viceconsejería de Sostenibilidad Ambiental ¶
- Dirección de Calidad Ambiental y Economía Circular ¶

«Nº Expediente» ¶

Prozedura./ Procedimiento: «PROZEDURA»./ «PROCE» ¶

Proiektu-mota./ Tipo de proyecto: «Gaia»./ «Tema» ¶

INGURUMEN, JASANGARRITASUNEN SAILBURUORDEAREN 2021EKO XXXXAREN XXKO EBAZPENAREN BIDEZ EMANDAKO «Imp_Subvención» EUROKO DIRU-LAGUNTZA ESKURATU AHAL IZATEKO «RAZÓN SOCIAL ACTUAL»-K («Municipio») BETE-BEHAR DITUEN BALDINTZA TEKNIKO ETA EKONOMIKOEN PLEGUA. ¶

Ingurumene, Jasangarritasuneko sailburuordearen 2021eko XXXXaren XXko Ebazpenaren bidez diru-laguntza bat eman zitzaion «RAZÓN SOCIAL ACTUAL» enpresari. Ebazpen hori eta ingurumena babesteko inbertsioak egiteko diru-laguntzak enpresei emateko baldintzak arautzen dituen urriaren 27ko 202/2015 Dekretua betez, jarraian diru-laguntza horren onuradunak zenbateko hori jaso ahal izateko bete behar dituen baldintza guztiak jakinarazten zaizkizu: ¶

¶

LEHENENGOA. -- Helburua. ¶

«RAZÓN SOCIAL ACTUAL» enpresari «Nº Expediente» espediente-zenbakiarekin emandako diru-laguntzaren helburua da ««Título del proyecto_euskera»» proiektua gauzatea. ¶

BIGARRENA. -- Emandako zenbatekoa, eta bateragarritasuna beste diru-laguntza batzuekin. ¶

Emandako diru-laguntza «Imp_Subvención» euro dira eta eskutatuko inbertsioetik («Inversión_Neta» €) diruz lagundu daitezkeen kostuen % «Porcentaje_concedido_(%)» da. Diruz lagundu daitezkeen kostuak eskaeran kontsideratutakoak baino txikiagoak badira. Inbertsioa egin ostean, diru-laguntzaren azkeneko zenbatekoa gutxitu egingo da goian aipatutako diru-laguntzaren ehunekora iritsi arte. ¶

¶ Ebazpena, 2021eko XXXXaren XXkoa, Ingurumen, Jasangarritasuneko sailburuordearena, zeinaren bidez erabakitzen baita urriaren 27ko 202/2015 Dekretuan aurreikusitako diru-laguntzak 2021eko ekitaldian jasotzeko prozedura. Dekretuak enpresei ingurumena babestera bideratutako inbertsioak egiteko diru-laguntzak emateko baldintzak arautzen ditu. / Resolución de XX de XXXX de 2021, de la Viceconsejera de Sostenibilidad Ambiental, por la que se resuelve la convocatoria, para el ejercicio 2021, de las subvenciones previstas en el Decreto 202/2015, de 27 de octubre, por el que se regula la concesión de subvenciones a empresas para la realización de inversiones destinadas a la protección del medio ambiente. ¶

¶ Ikus hurrengo atala / Ver apartado siguiente. ¶

PLIEGO DE CONDICIONES TÉCNICAS Y ECONÓMICAS QUE DEBE CUMPLIR «RAZÓN SOCIAL ACTUAL» («Municipio») CON EL FIN DE HACER EFECTIVA LA SUBVENCIÓN DE «Imp_Subvención» EUROS, CONCEDIDA POR RESOLUCIÓN DE XX DE XXXX DE 2021 DE LA VICECONSEJERA DE SOSTENIBILIDAD AMBIENTAL. ¶

En cumplimiento de lo dispuesto en el Decreto 202/2015, de 27 de octubre, por el que se regula la concesión de subvenciones a empresas para la realización de inversiones destinadas a la protección del medio ambiente y en la Resolución de XX de XXXX de 2021 de la Viceconsejera de Sostenibilidad Ambiental por la que se le concede subvención a «Razón Social Actual», a continuación se relacionan las condiciones a cumplimentar por la persona jurídica beneficiaria de la subvención, en orden a hacer efectivo el abono de la misma. ¶

PRIMERA. -- Objeto. ¶

El objeto de la subvención concedida a la empresa «Razón Social Actual», con el número de expediente «Nº Expediente», es la realización del proyecto ««Título del Proyecto»». ¶

SEGUNDA. -- Importe concedido y compatibilidad con otras subvenciones. ¶

La subvención concedida asciende a «Imp_Subvención» euros y representa el «Porcentaje_concedido_(%)»% de los costes subvencionables de la inversión solicitada («Inversión_Neta» €). En el caso de que, una vez ejecutada la inversión, los costes subvencionables fueran inferiores a los considerados en la solicitud, el importe final de